

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 23a / 630. zenbakia



ZORIONAK, MONDRA!
BERRIRO ERE PREFERENTE MAILAN

ORAIN ETA HEMEN: ESPAINIAKO GERRAKO FUSILATUAK/8 • KULTURA: AL-ANDALUSEN KULTURA ASTEA/15

AZALA: ALEX AZKARATE

OSASUN GIDA/24



Ignacio Lakunza.
Arrasateko Alkatetzarako Hautagaia.

Orain Arrasate.



Bozkatu eraginkor.



HARMAILATIK...


Kirola bizi izateko!

Astlehenero,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Julen Iriondo



**Ikusiko
duzu!**




KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu gay eta lesbiana bikotiek umiek adoptetako aukerie eukittie?



ARANTZA ERIZ
Langillie

Ondo ikusten dot. Gaiñerako bikotien eskubide iguelak euki biherko leukie. Umiek ondo zainddute egongo die, bikote heterosexual batzuekin baiño hobeto. Hori oso argi dauket.



ABEL PARRA
Langillie

Oso ondo dauela. Izatezko bikotiek beste edozein bikotek daukon eskubidiek euki biher daue. Ez dauket horren gaiñeko aurreiritzirik. Umiek ondo zaindduko dittue.



NEKANE DÍAZ
Langillie

Ondo dau bikote danek umiek adoptetako aukerie eukittie. Izen be, bikote heterosexual batzuk ez daue umiek eukittie merezi, eta badaukie. Hortan, bestiek zergaittik ez?



CESAR VELASCO
Langillie

Oso ondo ikusten dot. Gauza normalena dala pentsetan jat. Ez dot inungo problemarik ikusten. Askok aurreiritzixek daukie, dauen sexu errepresinua gaittik. Tristie da.



PILI ARREGI
Langillie

Oso ondo ikusten dot. Edozein bikotek umiek adoptetako aukerie euki biherko leukie: heterosexualak, gayek, lesbianek... Danek. Ez dakit zergaittik dauzen horrebeste aurreiritzi.



DAVID URRUTIA
Langillie

Ondo pentsetan jat bikote homosexual eta lesbianek umiek adoptetie. Umien edukaziñuen ez da problemarik egongo. Edukaziño kristauek ekarri dittu horreik aurreiritzixok.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZABORRA LEKUZ ETA ORDUZ KANPO Arrasateko Udalak aspaldi jarri zituen zaborra jasotzeko edukiontzia. Dagoeneko horiek ondo erabiltzera ohituta egon beharko ginatete, baina batzuetan ez dirudi horrela denik. Herritar bat baino gehiago kexatu egin da, batzuek zaborra ateratzeko ordutegia betetzen ez dutelako. Are gehiago, beste batzuek zaborra edukiontzien kanpoan uzten dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/9

Makatzenaren aldeko plana

Gobernu batzordeak Makatzena berriro urbanizatzeko proiektua behin-behinerako onartu du.

KIROLA /14

Gimnasia erritmikoa

Bihar, zapatua, B mailako gimnasia erritmikoko finala jokatu dute Uarkape Udal Pilotalekuan.

ZAHARRAK /17

Nagusilan lanean hasi da

Erretiratuek elkarri laguntzeko elkarte, Nagusilan, lanean gogor hasi da, eta laster egoitza izango du.

ASTEKO DATUA

2.200.000

EUROKO INBERTSIOA EGINGO DUTE MAKATZENAN

2.200.000 euroko inbertsioa egin behar izango dute Makatzena berriro urbanizatzeko. Hori zelan ordaindu erabakitzeke hitzarmena egin beharko dute Udalak eta Makatzenako auzotarrek.

BESTEKEKESANA

“

Sor dezagun talde txiki bat euskarazko hedabideen mapa, markoa eta elkarlanerako plana prestatuko

dituena. Sei hilabete nahiko lirakete oinarria jartzeko. Azter ditzagun figura juridikoak, eta aukera dezagun egokiena gizarte ekimena eta erakundeen ahalmena sendo lotzeko, koiuntura eta aldrebeskerien gaintetik. Sor dezagun euskarazko hedabideen kudeaketa bateratuko duen enpresa. Ezar ditzagun sareak, horizontalak eta bertikalak, informazioa zitu batean ibil dadin hedabide guztien artean. Tokiko hedabideei esker sare horrek zuztar sakonak izango ditu, beste inor iristen ez den tokira iritsiko da. Euskarazko hedabideen taldeak balio erantsia izango luke eta erreferente bihurtzeko aukera”

MIKEL IRIZAR
‘ARGIA’/03-05-18

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Eskubideak eta betebeharrak

Badaude lotuak dauden kontzeptu batzuk, hala nola: bizitza eta heriotza, hasiera eta bukaera, gaua eta eguna...

Aipatu barik utzi dudan kontzeptu bat eskubide eta betebeharrak da. Azken honen haritik, askok uste dute eskubideak soilik dituztela, betebeharrak ahaztuz. Baina hemen ere eskubideak betebeharrekin lotuak daude. Eskubideek betebeharrak dakartzate eta alderantziz ere, betebeharrak eskubideak ekarri behar dituzte.

Laster dugu aukera eskubide edo betebeharrak bat betetzeko. Egia esan, maiatzaren 25eko bozketa ez dakit eskubide edo betebeharrak den, edo biak batera. Askotan entzun izan dut eskubidea dela, baina herrialde batzuetan derrigorrezko betebeharrak da.

Oraingo hauteskunde hauetan, gainera, binomio hau nolabait apurtu egin da. Eskubideak murriztuak daude. Batzuek ez dute aurkezteko

eskubiderik; beste batzuk, berriz, aurkez daitezke, baina egoera txarrean.

Nafarroako herri batzuetan, berriz, ez dago alkatetzarako aurkeztuko den pertsonarik. Gaur egun nahiko zaila da besterentzako lana egingo duen jendea topatzea; beraz, aurkeztu den jende guztiari eskerrak eman beharko zaizkio lehendabizi.

Baina eskerrekin batera eskari bat ere egin nahi nieke guztiei. Oraingo bozketa hauetan gure hurbileko agintariak aukeratzten ditugunez gero,

eta haiek izango direnez hurrengo lau urteetarako gure hurbileko erabaki batzuk hartuko dituztenak, hau eskatuko nieke: bizi dugun eskubide murriztasuna gure hurbileko agintariak aukeratzten ditugunez gero, eta haiek izango direnez hurrengo lau urteetarako gure hurbileko erabaki batzuk hartuko dituztenak, hau eskatuko nieke: bizi dugun eskubide murriztasuna gure hurbileko agintariak aukeratzten ditugunez gero,

“Gure hurbileko agintariei eskatu nahi nieke bizi dugun eskubide murriztasuna gaintzeko pausoak emateko”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galnazarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 23**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 24**
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39
- DOMEKA, 25**
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 26**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 27**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 28**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUENA, 29**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUBAKOITZA, 30**
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRIAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ELKARTASUN EGUNA
Bihar, zapatua, Elkartasun Eguna ospatuko dute herriko gobernuz kanpoko erakundeek. Seber Altuben izango da, 10:00etatik 20:00etara.

'LARUNBLAI' JAIA
Bihar, zapatua, *Larunblai* jaia egingo dute San Andresko Kurtzetxiki plazan. 11:00etatik 13:30era bitartean, Txatxilipurdik betaurreko galaktikoen lantegia antolatu du.

JAIA BEDOÑABEN
Gaur, egubakoitza, Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak jaia antolatu du Bedoñabe eraikinean, San Andresen. 16:30ean hasi eta 20:00ak artean, askaria, karaokea, lantegiak eta puzgarriak izango dituzte.

DANTZA KLASIKOA
Bihar, zapatua, Arrasate Musikaleko dantza klasiko ikasleek emanaldia egingo dute Gasteizko Florida plazan. Emanaldia 12:00etan izango da eta Arrasateko dantzariak Gasteizko Kontserbatorioaren laguntza izango dute.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Maiatzaren 29an, eguena, Amaia Udal Antzokian, *Los lunes al sol* filma emango dute, 21:30ean.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
Maiatzaren 29an, eguena, XVI. Arrasate Lehiaketako sari banaketa egingo dute Monterronen, 19:00etan.

'EGUNKARIA'-REN ALDE
Euskaldunon Egunkaria ren aldeko herri batzordeak lanean jarraitzen du. Batzorde horretan parte hartzeko interesa duenak jo dezala AEDra.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

IFAMek lanpostuak gutxitu gura zituen

Feliciano Aranzabal (IFAM) enpresak hiru hilabeteko enplegu erregulazioa hasi zuen, eta langileek horren aurka egin zuten. Enpresa komiteko sindikatu guztiek (CCOO, LAB, ELA eta UGT) Lan Delegazioak onartutako espediente salatu zuten. Langileek protesta handiak egin zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eskekua"



Eskalea.
—Makiña bat eskeko ibiltzen zan sasoi baten etxeik etxe.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Hauteskundeen gaineko saio berezia astelehenean Arrasate Irratian

Batzar Nagusietako eta udaletarako hauteskundeak direla eta, datorren astelehenean, hilaren 26an, hauteskundeen gaineko saio berezia eskainiko dizue Arrasate Irratiak. 09:00etan hasiko da saioa eta 12:00etan bukatuko da.

Saioaren hasieran hauteskundeek Arrasaten utzitako emaitzen berri, alderdi bakoitzak zenbat zinegotzi eskuratu dituen, eta hauteskunde eguna herrian zelakoa izan den kontatuko dizuegu. Jarraian, boto gehien eskuratu dituen alderdiaren zerrendaburuari elkarrizketa egingo diogu, baina gainerako alderdietako ordezkariekin ere egingo dugu berba. Horrez gainera, herriz herri zein emaitza izan den jakiteko, ibarreko berriemaileekin egingo dugu berba. Gertutasunagatik, baina, Aretxabaletan eta Eskoriatzan boto gehien lortu duten alderdietako zerrendaburuari elkarrizketa egingo diegu. Azken minutuetan, berriz, gaia erabat aldatu eta Eurovision-en gainean egingo dugu berba Haika Aizpuruarekin.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 14	5 °C
MAXIMOA Domeka, 18	29 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	3,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	17 °C	5 °C	- l/m ²
Eguena, 15	24 °C	6 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 16	19 °C	8 °C	1 l/m ²
Zapatua, 17	27 °C	9 °C	- l/m ²
Domeka, 18	29 °C	9 °C	- l/m ²
Astelehena, 19	23 °C	10 °C	3,8 l/m ²
Martitzena, 20	16 °C	11 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak...
- 12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

- ASTELEHENA**
19:30 Berriketan: Almeneko ikasleen tartea.
20:00 MIR

- MARTITZENA**
19:30 Berriketan
20:00 Txortxorrien

- EGUBAKOITZA**
19:00 Planing Prest: Deliane Arrieta

- ZAPATUA**
11:00 Asteko elkarrizketak: Agurtzane Ugalde, Espe Lizarralde eta Eusebio Iñarra.

- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Ertzaintza testigu bila

Astehenean Kanpanzarrera bidean izandako istripuak zeresana ematen jarraitzen du. Ertzaintza argibiderik eman dezakeen testigu bila dabil. MAN markako kamioi batek eta Peugeot 306 markako auto batek aurrez aurre jo zuten, eta autoan zihozten bi lagunak hil egin ziren.

Jaime Ortiz tolosarra momentuan hil zen. Arantzazu de Bedialauneta, berriz, larri zaurituta eraman zuten Gasteizko Santiago ospitalera eta martitzen arratsaldean zendu zen. Ez dakite zelan gertatu zen ezbeharrak, eta Ertzaintza lekuko bila dabil.

Antonio Cancelori saria

Urte asko egin ditu Antonio Cancelok kooperatiban lanean. Azken urteotan MCC kooperatiba taldeko buru izan da. Orain dagoeneko erretiratuta dago, baina kooperatibismoarekin lotura sendoa du oraindik. Madrilgo Lan Ministerioko kideek urrezko domina eman berri diote Cancelori, lanean egindako merituengatik.

Bere izendapena APD elkarteak egin du, Zuzendaritzan Garapenerako Asoziazioak.

AUKEA sarien banaketa

Joan den astean AUKEA Kirol Elkarteak AUKEA sariak banatu zituen. Aurtengo sariak Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldearendako, Iban Galán karateka gaztearendako eta Joxe Arriaran pilotari ohiarendako izan dira.

Iban Galánek norbanako saria jaso zuen. 5 urterekin karatean hasi eta 18 urterekin garaipen ugari ditu bere baitan Ibanek. Iaz, adibidez, Euskadiko txapeldun izan zen. Taldekako saria 1976an sortu zen Arrasateko Zikloturista Taldearendako izan zen, eta sari berezia punta-puntako pilotari izandako Joxe Arriaranek eskuratu zuen.



Arizmendi Ikastolaren Eguna

Arizmendik antolatutako Ikastolaren Astea amaitzeko, zapatuan, hilaren 17an, Ikastolaren Eguna ospatu zuten. Urtero moduan, jaia Arrasateko hainbat kale eta plazatarazabaldutatu zuten. Eta eguraldia lagun, jaia ospatu zutenek ez zuten aspertzeko denborarik izan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Erabaki orrazkera

Zalantzan egon naiz hauteskondeez edo Eurovisionez berba egin, baina oso europarra sentitzen ez naizenez, eta egungo gazteen joeren zalea are gutxiago naizenez, ba hauteskunde bedeinkatuz idatzi beharrean nago.


Zalantzagarrria da aldiro hauteskundeetan parte hartzearekin gure ideia eta ametsak inoiz gauzatuko

diren edo inon kontuan hartzen dituztenik. Bestalde, argi dago hauteskunde horiek ez direla serioak. Aspaldian Espainiako Estatuan bizi duguna txistea dirudi. Sinesgaitza da euskal herritar askori aukera politiko bati botoa ematea ukatzea. Talde horrek aurrera egitea erabaki du, Espainiaren aurkako desobediencia zibila bultzatuz.

Gogor egin diote talde horri eta gainontzeko alderdiak egoera horri probetxua ateratzen saiatuko dira.

Horrez gain, paradoxikoki ezker abertzaletik banandutako alderdi politiko berria, Aralar, hauteskunde xeble hauek estreinatuko egingo da. Euren burua ezkertiarizat eta abertzaletzat dutenek desobediencia zibilaren edo aipatutako talderen baten alde egingo dute. Erabakigarriak izango ote dira?

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

ARRASATEKO EMAKUMEEN TXOKOA, AUKERA BERDINTASUNERAKO GUNEA

Arrasateko aukera berdintasunerako gunea da Emakumeen Txokoa. Emakume Kontseilutik urtean bultzatu den proiektua da, eta azkenean proiektu hori egi bihurtu da. Emakumeen Txokoa eguaztenean inauguratu zuten, eta, zelan ez, emakumeak izan ziren inaugurazioko protagonistak.

Inaugurazio ekitaldia polita izan zen: biolin jotzaileak, olerki emanalditxoak, Goikobaluko emakumeen abestiak... Uarkape pilotalekuaren atzeko aldean dago Emakumeen Txokoa, eta hemendik aurrera Arrasateko emakumeek ateak parez pare izango dituzte zabalik bertara sartzeko. /MAIDER OSA

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

“PAL”

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Amaiur taberna

- Oilasko erreak egiten ditugu, enkarguz, etxera eramateko
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Platertxoak
- Eguneko menuak

Etxeko berezitasuna: txorizoa infernu erara.

Ignacio Zuloaga 6. Arrasate. Tel.: 943 77 19 28

M25 / ARRASATERAKO EGITASMOAK



HERRI ANITZA

Gazteen autoantolaketa bultzatu eta auzotarrekin lankidetzan landu gura dute

► EUSKARA

Udala euskararen erabilera eredu izatea gura dute. Euskalgintzaren Plan Estrategikoa bultzatzen jarraitzeko asmoa dute.

► EMAKUMEA

Aukera berdintasunerako bigarren plana ezarri eta Emakumeen Txokoa berdintasunerako erreferente bilakatu gura dute.

► GAZTERIA

Gazteen autoantolaketa bultzatu, Gazte Plana gazteekin diseinatu eta gaztetxearen dinamika propioa babestu gura dute.

► INGURUMENA

Herri autobusa indartu, eta Kurtzetxiki errekupe-ratu gura dute. Maltzaga-Urbinaren eta AHTren aurka eta komunikazio sarea egokitzearen alde daude. Tranbiaren aldeko dira.

► HIRIGINTZA

Lurrak modu orekatuan garatu, eta auzoetako plan bereziak auzotarrekin batera egin gura dituzte. Olandixoko tunela egin gura dute.

► ETXEBIZITZA

Alokairuko eta prezio mugatuko etxebizitza gehiago egin gura dituzte. Ibarreko alokairu bulego publikoa eratu gura dute eta hutsik dauden etxebizitzak merkaturatu.

► ONGIZATEA

Etorकिनendako Abegi Plana egin gura dute. Droga-mendekotasunaren prebentzioa indartu eta adinekoen ongizatea bermatu gura dute.

► KULTURA

Kultura etxe berria abian jarri gura dute, taldeei bitartekoak eskaini eta folklorea sustatu gura dute.

► HEZKUNTZA

Hezkuntza Kontseiluaren funtzionamendua osatu, eta heziketa zikloak euskaldundu gura dituzte.

► ENPLEGUA

Lan merkatutik kanpo daudenendako lan aukerak aztertu eta lan arriskuen prebentzioa administrazioan erreferente bihurtu gura dute.

► KIROLA

Mojategiko Kirol Proiektua eraiki gura dute, herri kirolak zabaltzeko gura dituzte, eta bideak berreskuratzea gura dituzte.

► ZERBITZUAK

Automobilaren erabilera mugatu, bizikleta bultzatu eta kolektorearen lanak bukatu gura dituzte. Auzoen eta Udalaren bitartekari izango den *Auzozain* figura sortu gura dute.



EAJ/EA

“Arrasatek beste jarrera bat merezi du, alderdien interesen ginetik”

► KUDEATZEKO BESTE MODU BAT

EAJ/EA koalizioak Arrasate gobernatzeko beste era batzuk bilatzeko unea dela uste du. Arrasate berebiziko garrantzia duen herria da, eta nazioarte mailan lankidetzaren bidez lortutako garapena eta aberastasuna islatzen ditu. Arrasatek beste jarrera bat merezi du, alderdien interesen ginetik herriko interesak jarriko dituen. Konponbiderako joera, jarrerak hurbiltzeko gai izango dena. EAJ/EAk arrasatear guztien artean, gure inguruko herri guztien artean eta erakunde guztien artean Arrasaterendako hoberena lortu nahi du.

► “EGITASMO BERRIA”

EAJ/EA koalizioak egin duen gogoetari esker, euren zuzendaritzapean, justizian, solidaritatean, berdintasunean, elkarbizitzan eta elebitasunean oinarritutako egitasmoa egin du, Arrasate herri baketsu eta solidarioa izan dadin. Horrekin batera, Egitasmo Berriak gizakien eta bitartekoen garapena bilatzea du helburu, baina, betiere, garapen orekatu eta jasangarria izan behar du. Egitasmo berri horren izena *Sinestu gure herrian* da. Horrekin batera, EAJ/EAk oso argi dauka gobernuak eta udal kudeaketak kalitatezkoak izan behar dutela, betiere herritarrengatik hurbil.

► ARRASATE ERAKARGARRIA


EAJ/EA koalizioaren Egitasmo Berriak aldiro-aldiro gertatzen den populazio jaitsierari amaiera eman nahi dio. Arrasate bizi izateko eta lan egiteko herri erakargarria izatea da euren helburuetako bat. Horretarako, baina, etxebizitza berriak egin behar dira, lanpostu berriak sortu, egungo enpresei eutsi eta berriak sortzeko erraztasunak eman. Horrekin batera, kirolean eta kulturagintzan egitasmo berritzaileak bultzatuko dituzte.

► MUGETATIK KANPO

EAJ/EAREN Egitasmo Berriak Arrasateren mugak gainditu gura ditu, eta ibarreko gainerako udalekin batera Mankomunitate kontzeptua garatu eta indartu gura du. EAJ/EAREN dako hori da Debagoiena indartzeko bidea, eta Euskadiko laugarren hiriburu bilakatu dadin oinarri sendoena. Euskal Autonomia Erkidegoan Debagoieneko biztanleek zeresana izan dezatela.

► HERRITARREKIN BATERA

EAJ/EAREN udal kudeaketan herritarren premia izango da, herritarrekin harreman zuzena izatea da helburua, arrasatearren gogo-nahien berri izateko eta Udaleko lan guztia euren eskura jartzeko. Udal, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioak gidatuko du EAJ/EAREN egitasmo berria, Arrasatek azpiegiturretan dituen arazo larriak irtenbidea emateko.



PSE-EE

“Auzoek protagonismoa galdu dute, eta hori konpondu gura dugu”

► AUZOAK

Auzoak birgaitzeko programa berezia proposatzen dute, urbanizazio eta ekipamenduetan dauden ezberdintasunak txikituz eta gaizkien hornituta daudenei lagunduz. Azken urteotan auzoek protagonismoa galdu dutela uste du PSE-EEK, eta hori konpondu beharreko zerbait da. Horrez gainera, Arrasaten aparkatzeko leku gehiago jarri behar dira.

► ZERBITZUAK

Herritarrek Udalean hartzen diren erabakien berri izateko udal aldizkari bat sortu gura dute. Horrekin batera, garraio publikoak aukera handiagoak eskaini behar ditu, ibilbideak eta ordutegiak luzatuko dituen partzuergo baten bidez. Horrez gainera, gutxiegi erabiltzen ditugun gune batzuk (Amaia antzokia edo Monterron jauregia) berreskuratu egin behar direla uste dute. Horrekin batera, kirol proiektu bat abian jarri gura dute, eta udal kirolgune berria egin. Azkenik, Plan Orokorra egokitu eta garatu beharreko zerbait da, Arrasate ahalmen handiko komunikazio-sareetan erabat sartu eta Euskadiko laugarren hiriburua izan dadin.

► HEZIKETA

Arrasaten 0 eta 3 urte arteko umeen hezkuntzarako zerbitzu publikoa ezarri gura dute. Horrekin batera, gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan handiagoa egin gura lukete. Bestalde, PSE-EEK gazteen artean gizabidezko eta elkartasunezko balioak zabaltzeko plana abian jarri gura du.

► ETXEBIZITZA

Plan Orokorren barruan hainbat irregularitasun daude, eta irregularitasun horiek argitu gura dituzte. Horrekin batera, etxebizitza duina eskuratzeko arazoa konpondu gura dute, batez ere gazteei eta nagusiei lagunduta.

► ENPLEGUA

Lanbide gehiago sortzeko eta enpresa esparrua indartzeko asmoz, enpresak sortzeko eta ezartzeko ekimenak bultzatu gura dituzte. Horretarako eskualdean industrietarako zorua sustatu gura dute.

► GIZARTE BAZTERKETA

Baztertuta dauden hainbat gizarte talderi laguntza eskaini gura diete: tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak; ezindu fisikoak; baztertuak... Horrekin batera, politika zehatz batekin bat egiten ez duten herritarrei lagundu gura diete, horrek dakarren bazterketari aurre eginez, errespetua eta balio demokratikoak oinarri hartuta.

► INGURUMENA

Udalean hartzen diren erabaki guztiek ingurumena errespetatu dezaten arduratuko dira.



PP

Herria hobeto komunikatuko duten azpiegituren alde daude

► GAZTERIA

Gazteek euren aisialdiari probetxua ateratzeko egoitza bat eraiki gura dute; gaur egun herriko gazteek dituzten baliabide urrien aurrean, alternatiba izango den zerbitzua izango dena, hain zuzen ere, eraiki gura dute.

► INGURUMENA

Gure ingurumena eta herria bera gutxiago kutsatzea gura dute. Horrez gain, herrian sortzen dugun zabor kopuru erraldoia modu egokian kudeatzeko zaborren sistema pneumatikoa jarri gura dute.

► HIRIGINTZA

Arrasateko hirigintza alorrari aldaketa eta berrikuntza handia eragin gura diote. Horretarako, egungo Egitamu Orokorra zeharo aldatu gura dute eta beste premia batzuei aurre egin.

► ETXEBIZITZA

Arrasaten, batez ere, gazteen artean etxebizitza eskuratu ahal izateko premia handia dago. Arazo hori konpontzeko babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeko asmoa dute. Baita salneurri tasatua duten etxebizitzak bultzatzeko ere. Horrekin batera, Egitamu Orokorra aldatzen badute, lurra merkeago jarri ahal izango dutela diote. Horrez gain, etxebizitza politikari aurrekontu handiagoa eman gura diote, batez ere gazteek, familia ugariak eta hirugarren adinekoen senideak dituzten familiei laguntzeko.

► KULTURA

Herritarrei kulturaren gaineko premia guztiak beteko dizkien egoitza handi bat eraiki gura dute. Eraikin horretan adin guztiei zuzendutako kultura ekimenak bultzatuko dituzte.

► KIROLA

Arrasateko herritarrek kirola egin ahal izateko zerbitzu gehiago behar dituztela diote. Horren aurrean, kirol zerbitzu ugari izango dituen eraikina egitea proposatzen dute.

► KOMUNIKABIDEAK

PPren iritziz, Arrasateko eta gure ibarrak komunikazio arazo larriak dituzte. Hala, Maltzaga-Urbina autobidea bultzatzea oinarritzeko ikusten dute. Horrekin batera, Arrasateren eta ibarreko gainerako herrien arteko errepideak hobetu gura dituzte. Arrasate bera EAEko hiriekin hobetu lotu gura dute. Horretarako behar diren azpiegitura guztiak eraikitzeko gertu daude.

► ONGIZATEA

Familiaren alde egin gura dute eta hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetu gura dute. Solidaritatea, demokrazia eta hiritarren parte hartzea areagotu gura ditugu.



IU-EB

Bizilagunaren defendatzailearen figura sortu gura dute

► ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren arazoak gazteei asko eragiten dielako, hainbat ekimen bultzatu gura dituzte: Zerrajeran salneurri finkatua duten 168 etxebizitzaren erdiari babes ofizialeko izendapena jarri gura diote; eta Uribarrin merkatuko salneurrian egin beharreko 144 etxebizitzaren %33ari, babes ofizialeko izendapena. Horrekin lotuta, EBk uste du iraingarria dela herrian 700 etxebizitza hutsik egotea, eta lankidetzan horiek alokairuan jartzea proposatzen du. Horrez gain, eta kontuan hartuta Arrasateko orube librea eskasa dela, proposamen bitxia dute: herriko zenbait gunetan etxe berriak egin gura dituzte eta etxe horietan hamar etxebizitza bakoitzeko garbitegia, sukaldea eta jantokia elkarrekin banatzea proposatzen dute, hain zuzen ere.

► AUZOAK

Arrasateko zenbait auzotako eraikinek eta inguruen berrikuntza behar dutela diote. Hauek nabarmendu dituzte: Santa Teresa, Etxe Txikiak eta Zaldibar, besteak beste. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarekin eta auzotarrekin lankidetzan auzo horien berrikuntza planak adostu gura ditu. Lan horiek Tailer Eskola-ko ikasleek egin beharko dituzte.

► HIRIGINTZA

EB taldekoak kezkatuta daude Hiri Ordenazioko Udal Plan Orokorren ondorioengatik. Arrasateko biztanleak plan horrekin urduri daudela azpimarratu dute. Horregatik, deseroso edo nahastuta dauden herritarrekin elkarriketa bultzatu gura dute, eta adostasuna lortu. Horrez gain, uste dute Arrasateko Mugikortasunerako ituna onartzeko beharra duela, eta hori lortzeko gizarte guztiak parte hartu behar duela. Bizilagunen defendatzailearen figura sortzearen alde egingo dute.

► INGURUMENA

EBk Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Plana baztertu egiten du, Urkulun 1.000 etxebizitza eskaini gura dituztelako. EBren ustez, ingurumenari kalte egiteaz gain, espekulazioaren adibide garbia da. Baliabide ekonomiko gehien dituztenen onurarako dela dio.

► AISIALDIA

Astialdirako merkataritza eskaintza guztiak herri barneko denda txikiei lehia egiten dietela azpimarratu dute. Horrekin batera, Zerrajerako etxebizitza berrietan honako guneak egin gura dituzte: Naturaren Interpretaziorako Zerbitzua, Giroko Etxebizitza Eredua eta Bisitarietako Zentroa.

► HEZKUNTZA

EBk gura du Eskola Publikoan 0 eta 3 urte arteko zikloa ezartzea. Zerbitzu hori emateko gune aproposena San Andresko Bedoñabe eraikina izango dela uste du.



ARALAR

“Gure iritziz, maiztertaren kultura bultzatu beharko litzateke, European moduan”

► HIRI EDO HERRI ANTOLAKETA

Ez dute uste azken urteotan hiri edo herri antolaketa garapen eramangarriaz egin denik, eta hori oinarritzeko zerbaitekin, abiapuntutzat hartzen dute garraio publikoa bultzatzea. Horrekin lotuta, nekazaritzari orain baino laguntza handiagoa eskaini behar zaiola uste dute, eta AHTren Y proiektua baztertu eta azterketa sakona egin beharko litzatekeela diote. Zer esanik ez Urkulu inguruko eraberritzeaz... Ezinbestekoa da biodibertsitateari jaramon egitea, eta orain arteko planek ez dute hori kontuan izan. Aralarren esanetan, ohiko paisaia iraganeko zerbaite bilakatu dute. Azkenik, hondakinen kudeaketa heziketa onarekin bultzatu behar da, bestela, alferrikakoa bihurtuko da eta birziklapena eta berrerabiltzea aldarrikatzea.

► ETXEBIZITZA

Etxebizitza politika guztion ahotan dago, baina azken urteotan egin diren zorakerien ondorioz, gai horri derrigor heldu behar diote. Badirudi lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko asmoa dagoela, eta Aralar ados dago horrekin, baina, euren ustez, maiztertaren kultura sakondu beharko litzateke, Europako beste nazio batzuetan moduan.

► KULTURA

Arrasaten hainbat kulturagune daude, baina gaizki kudeatuta. Baliabideei ahalik eta etekin handien ateratzeko, kultura ekitaldi gehiago eta askotarikoagoak egin behar dira. Arrasateko jendeak kanpora joan behar izaten du horrelako ekitaldien nahia asetzeko. Kirol arloa aztertu eta eskaintza bideragarriagoak egin daitezke.

► HEZKUNTZA

Hezkuntza arloan Jaurlaritzako sailak du eskumena, baina 0 eta 3 urte arteko eskola publikoa eta doakoa izan dadin Udalak indar handiagoa egin behar du.

► ENPLEGUA

Enplegu politikan eremu urria dute udalek, baina gutxienez udal zerbitzuetan lanean dihardutenen lan-eskubide oinarritzeko errespetatu egin behar dira.

► EUSKARA

Orain arte euskara hedatzeko eman diren pausoak zuzenak izan direla uste du Aralarrek (Plan Estrategikoa), eta horretan sakondu jarraitzeko asmoa azaldu gura dute.

► EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eta errespetuan urratsak eman diren arren, ez zaie nahiko iruditzen, eta udalek horretan sakontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute.



Hara orain arteko udalbatzarraren azkeneko argazkia; PPKo zinegotzia falta da, apurtxo bat geroago heldu zelako.


UDALA/ Osoko bilkura

Agur barikoa izan zen azkeneko osoko bilkura

Ezohiko egunean eta ezohiko giroan. Horrela egin zuen udalbatzarrak legegintzaldiko azkeneko osoko bilkura. Zinegotziek gai-zerrenda luzea zuten lantzeko. Baina,

hasi baino lehen, PSE-EEko kideen izenean, Blanca Roncalek idatzi bat irakurri zuen, eta azaldu zuen bere taldea ez zela geratuko, laburbilduz, bilkuran hartuko

ziren akordioak dudazko legezkotasunekoak izango zirelako. Hala, haien absentiarekin, herritar askoren presentziarekin eta agurtu barik bukatu zen bilera.



Hogeita hiru urteren ostean berriro ere etxean

ARRASATE PRESS

Azken 23 urteak herritik kanpo egin eta gero, etxera itzuli da Enrike Letona arrasatearra. Letonak 16 urte egin ditu Espainiako eta Frantziako kartzeletan. Zapatuan egin zioten ongiatorria.

Harrera bero eta jendetsua egin zioten Enrike Letona Biteriri senideek eta lagunak. Zapatuan izan zen. Orduantxe ikusi zuten askok, 16 urte kartzelan egin eta gero. Izan ere, joan den egunean, hilak 15, askatu zuten Murtziako kartzelatik.

Txalaparta doinuekin hasi zen ongiatorri ekitaldia. Ohorezko aureskua eta opari banaketa ere ez ziren falta izan. Murtziako kartzelako presokide izandakoek ere ekitaldian egon gura izan zuten,

eta kartzelan Enrike Letonaren dako idatzitako bertsoak irakurri zituzten Seber Altube plazan.

Gero, ekitaldia amaitu eta manifestazioa egin zuten plazan elkartu zirenek Enrike Letonarekin batera. Eta, horren ostean zenbait lagunekin batera afaltzera joan zen preso ohia Uarkapera.

1987AN ESTRADITATUA

1987ko urriaren 4an Espainiara estraditatu zuten Enrike Letona beste 36 euskaldunekin batera. Espainian Carvanchelgo kartzelara eraman zuten. Harrez gero, preso egon da beste zenbait kartzelatan. Haren esanetan, besteak beste, ikasi eta ikasi ibili da urte horietan guztietan.

Bestalde, zapatuko ekitaldian Goitbri adierazi zioenez, askatasuna lortzeko elkarrekin borrokatu beharra dago.



Irtenbidea ezker aldean dago, Ezker Batuaren iritziz

U.M.

Egubakoitzean, hilaren 16an, azoka txikian egon ziren Ezker Batuko hautagaiak euren ideien berri ematen. Eta atzo, eguena, Antton Karrerak eta Oscar Matutek lagunduta, ekitaldia egin zuten.

Egitamu Orokorrarekin sortu diren zalantzak konpontzeko auzotarrekin elkarrizketa eta adostasuna lortzea proposatzen du EBk. Etxebizitza alorrean babes ofizialeko edo finkatutako prezioetako etxebizitzak proposatzen ditu, baita etxe hutsak erabiltzea ere.

Horrekin batera, herriko zenbait gune lehengoratzeko asmoa

dutela ematen du aditzera Arrasateko Ezker Batua taldeak, hala nola: Santa Teresa, Etxe Txikiak eta Zaldibar. Lurraldearen Zati-Plana baztertu egiten dute, euren esanetan ingurumenari kalte egiteaz gain, espekulazio adibide garbia delako. Aisialdirako ekimen berriak egiteko asmoa dutela ere badiote, adibidez, Zerrajerako etxebizitza berrietan Naturaren Interpretaziorako Zerbitzua.

Hezkuntzaren alorrean, eskola publikoan 0-3 urte bitarteko zikloa ipintzeak lehentasuna duela uste dute; Mugikortasunerako Ituna sinatzea proposatzen dute eta Bizilagunaren Defendatzailearen eta Haurtzaroko Kontseiluaren instituzionaltasuna gura dute.



Azken txanpa

Ekin eta ekin dabil Arrasateko alderdi sozialista hauteskunde-atarako kanpaina egiten. Eta, kanpaina hasieran agindu zuten moduan, kalerik kale ibili dira, herritarrei zuzenean propaganda, arrosak, pinak eta metxeroak ematen.

Joan den egubakoitzean, hilak 16, ere hala egin zuen PSE-EEK. Azoka txikiak jende asko erakartzen duela-eta, hantxe ibili ziren euren ideiak aditzera ematen. Arrasateko Udaleko zinegotzi taldea ibili zen lanean; argazkian Blanca Roncal, Arrasateko zerrendetako emakumezko zerrendaburu bakarrenetarikoa.

LABUR

Espainiako gerran fusilatutakoen gaineko erakusketa

Herriz herri ibili eta gero, Espainiako gerraren ondorioz fusilatuta izan ziren herritarren gaineko erakusketa Arrasatera iritsi zen joan den astelehenean, hilak 19. *Hazia erein zenutenoi* izena du erakusketak eta hilaren 8ra arte izango da Monterronen.

Debagoieneko fusilatuen senitartekoen eta lagun elkarteak antolatuta, iragana errekuuperatzea da erakusketaren helburua. Baita, fusilatuen izen ona berreskuratzeko eta haiei errekonozimendua egitea ere.

Herriko alkate Xabier Zubizarretak eta batzordeko kide Maite Urangak inauguratu zuten erakusketa. Besteak beste, gogorarazi zuten datorren ekainaren 8an onenaldia egingo zirela gerran bizia galdu zutenei; meza izango da 11:00etan eta ostean, 12:00etan, Lau-Biden ekitaldia egingo dute. Besteak beste hildako 110 lagun izenak dituen monolitoa ipiniko dute.

Bezperan, ekainaren 7an dantza ikuskizuna izango da

HIRIGINTZA/ Makatzena berriro urbanizatzeko proiektua

Makatzena auzoa goitik behera berritu gura du Udalak; proiektua onartu berri du

UBANE MADERA

Makatzena berriro urbanizatzeko proiektua behin-behinerako onartu du Gobernu batzordeak. Orain jendaurrean egongo da hilabetez, alegazioak jasotzeko. Erguingo lanen moduan, Makatzenan ere aurrekontuaren arabera egingo dituzte lanak, zatika.

Makatzena auzoaren egoera hobetzeko proiektua egin du Asmatu enpresak, Arrasateko Udalaren enkarguz. Bestetan aipatu izan dugun moduan, Udalaren asmoa da zaharkituta geratu diren zenbait auzo berriro urbanizatzea. Hala egiten dabil Erguinen, eta hala egin gura du Makatzenan ere.

Horrela, bada, Asmatuk egingako proiektuaren arabera auzoa goitik behera berritu beharra dago. Eta era guztietako lanak egingo dituzte: etxebizitzak berritzetik hasi eta lorategiak konpontzeraino.

ESPALOI HANDIAGOAK

Adibidez, auzoaren beheko aldean dagoen hegala konpondu egingo dute eta zoladura berria ipi-



ARTXIBOA

Oro har, auzoa goitik behera berriro urbanizatu gura dute.

niko dute; baita baranda ere.

Auzoko errepideetan berrikuntza lanak egingo dituzte, espaloi berriak eraikiko dituzte (oraingoen bikoitzak zabaleran) eta auzo osoko eskailerak konpondu eta egokituko dituzte. Izan ere, Makatzenara igotzeko aldapa

saihesteko eskailera ugari daude, eta horietako askok ez dute gaur egungo legedia betetzen.

ESKAILERA MEKANIKOAK

Eta, horren harira, Hondarribia eta Makatzena kaleen artean eskailera mekanikoak ipintzeko

asmoa ere badute.

APARKALEKUAK

Bestalde, etxebizitzetan berritze lanak egingo dituzte; gaur egun dauden lokalak garaje moduan erabiltzeko txukunduko dituzte; hutsik dauden lokalei erabilera emango zaie; auzoaren atzeko aldean aparkaleku estaliak eraikiko dituzte, mendiari zatia kenduta; eta gaur egungo umeen jolasparkepean ere aparkalekuak eraikiko dituzte.

Era berean, argi eta telefonía hariak lurperatu egingo dituzte; auzoko lorategiak berritu egingo dituzte; euri-urei dagokien saneamendu sare berria egingo dute; eta, oro har, Makatzena osoan kale-argi berriak ipiniko dituzte; azkenik, autobus geralekua ipintzeko asmoa ere badute, markesina eta guzti.

BI MILIOI EURO PASATXO

Guztira 2.200.000 euro pasatxoko inbertsioa egin behar izango dute Makatzena berriro urbanizatzeko. Hori zelan ordaindu erabakitzeko hitzarmena egin beharko dute Arrasateko Udalak eta Makatzenako auzotarrek.

LABUR

Lursailak zehazteko mugarrak ipiniko ditu Udalak

Udalak basoetan dituen lur sailak zehaztu gura ditu, eta zehaztu eta gero mugarrak ipini. Hain justu ere, dagoeneko hasi da lan hori egiten eta Kurtze Txiki eta Artia baserrien inguruetan 150 bat mugari ipiniko ditu uztailean. Horretarako 6.900 euro bideratuko ditu. Hori izango da proiektu osoaren lehenengo fasea.


Eta, mugarritzeaz gainera, aurrera begira bidezidorren, gurdibideen eta antzerakoen ikerketa eta inbentarioa egin gura du Arrasateko Udalak.

Arrasate zinema barik geratuko da Alai itxi eta gero

Arrasate zinema barik geratuko da udan. Izan ere, Alai zinema kudeatzen duen enpresak ekainean ateak ixtea erabaki du. Kontua da arrasatearrek ez dutela herrian zinemara joateko ohiturarik, gehienetan Gasteizera joaten direlako. Horren ondorioz, egungo egoera jasanezina da eta zinema ixtea erabaki dute.



Fronton tabernarekin MALLORKARA!



Fronton tabernako zozketako irabazleak -Mallorkara astebeteko bidaia zoragarri bat- Aian Granados Guijano eta Aitor González Prieto izan ziren. Zorionak, bioi!

Adi! Aurrerantzean ere zozketa gehiago egongo dira.



ARRASATE PRESS

Herritar asko joan ziren, jaiak behar den moduan hasteko asmoz, San Isidro elizan esandako meza entzutera.

ASTOA POZIK GERATU DA MUSAKOLAKO JAI EKIN

Aurreko aste bukaeran Musakolako jaiak izan ziren, eta eguraldia lagun jende asko ibili zen jai giroan. Denetik egon zen: herriko pilotari ikusgarrienen partiduak; herri bazkaria; Xake Txapelketa; herri kalejira; Sokatira Sari Nagusia; buruhandi eta gaitariak; gimnasia erritmikoko erakustaldia; eta beste hainbat ekintza. Gauetan ere, kontzertuekin edo kontzertu barik, sekulako giroa egon zen Musakolako kaleetan. Herritarrek, baina, gauza bat igarri zuten faltan: moto hotsa. Aurten Zigorrolako Motozale Elkarteak ez da moto kontzentrazioa egitera animatu, eta Arrasateko kaleetan ez ditugu bestetan ikusi izan ditugun motoak ikusi. Ea datorren urtean, taldeko lana eginez, kontzentrazioa egitera animatzen diren. Gainerakoan, punta-puntako jaiak izan dira, eta, gainera, astoa eta herensugea inoiz baino goxoago ikusi ditugu.



AMAGOIA LASAGABASTER

Egubakoitzean Arizmendiko Santa Teresako ikasleek animatu zituzten kaleak.



AMAGOIA LASAGABASTER

Asto belarriak jantzi eta danborrada eginez omendu zuten egubakoitzean San Isidro.



ARRASATE PRESS

Gauetz bai, baina egunez ere giro polita egon zen.



ARRASATE PRESS

Musakolako hainbat koadrilak San Isidro jaiak aprobetxatzen dituzte koadrilako bazkaria edo afaria egiteko.



ELKARRIZKETA
SU-ETENA
AUTODETERMINAZIOA

ERRESPETUA EREIN BEHARRA DAGO,
GERO, JASO AHAL IZATEKO



ARALAR

Zure
botoa

FUTBOLA

Erregional mailan lau urte egin eta gero, Mondra preferente mailako talde da

Erregional mailako finala Orion jokatuko dute bihar, zapatua, 17:00etan, Mondrak eta Beti Gaztek

XABIER URZELAI

Azken lau urteak atzean utzita, Mondra dagoeneko preferente mailako talde da. Arrasateko taldeak 2-1 irabazi zion Soroluzeri, baina partidua uste baino gaitzagoa izan zen. Igoera lortuta, Arrasateko taldeari gauza bakarra gertatzen zaio egiteko: erregional mailako txapeldun izatea.

Eta horretarako, bihar arratsaldean Mondrak Beti Gazte taldeari irabazi beharko dio. Talde bi horiek datorren urtean preferente mailan egongo dira, eta euren helburua igotzea

bazen ere, erregional mailako txapeldun izatea denboraldia ezin hobeto amaitzea da.

Horretarako, baina, bihar arratsaldeko bostetan Orion jokatuko behar duten partidua irabazi egin behar da, eta aurkaria ez da makala izango: erregional mailako beste multzoko liderra, Beti Gazte taldea. Irabaziz gero, Mondrak joan den aspaldiko denboraldi onena biribilduko du.

Azken bi partiduetan Mondrak besteko maila erakutsi dute Arrasateko jarraitzaileek, eta seguru denboraldiko azken partiduan ere Arrasateko hainbat jarraitzaile egongo direla Orion, egun pasa ez bada ere.




XABIER URZELAI

Josu Zubiak atera zuen hamaikakoan ez zen ezustekorik izan.



XABIER URZELAI

Soraluzekoek ez zieten gauzak batere erraztu arrasatearrei.



XABIER URZELAI

Mondra Futbol Taldea non, jarraitzaileak han.



XABIER URZELAI

Jon Muriak bigarren gola egin zuenean zoramena izan zen, bai futbol zelaian baita harmaitan ere.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Bihar, zapatua, B mailako eskola arteko gimnasia erritmikoko finala Uarkapen

Guztira 24 taldetako 150 gimnasta lehiatuko dira bihar B mailako gimnasia erritmikoko finalean

XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, B mailako gimnasia erritmikoko finala jokatuko da Uarkape Udal Pilotalekuan. Txapelketa goizeko hamar eta erdietan hasiko da, eta eguerdian atsedean hartu eta gero, arratsaldean berriro ere ekingo diote lan saioari.

Arrasateko bederatzi gimnasta egongo dira txapelketan. Horietatik seik talde moduan hartuko dute esku: Alaitz Ajuria, Ainhoa Baltzategi, Ane de la Fuente, Leire González, Lorea Medina eta Ane Ormaetxeak osatuko dute alebin mailako taldea. Horrez gainera, Leire González eta Lorea Medina bakarka ere lehiatuko dira. Infantil mailan, berriz, Amaia Albes eta Leire Hernández izango dira. Azkenik, kadete mailan, Maite Otxandiano lehiatuko da.

Arrasateko bederatzi talde izango dira; txapelketan, baina, 24 talde ibiliko dira nor baino nor


gehiago; gutxi gorabehera 150 gimnasta inguru. Argi dago jardunaldi luzea izango dela.

TXAPELKETA GOIZ ETA ARRATSALDE

Txapelketa bi zatitan banatuko dute: goizeko lan saioa eta arratsaldekoa: goizeko lan saioak 10:30etik 14:30era iraungo du, eta kadete eta gazte mailako gimnastak lehiatuko dira; atsedean hartu eta indarrak berreskuratu eta gero, 16:30ean hasiko da arratsaldeko lan saioa. Arratsaldean, baina, gaztetxoek hartuko dute esku, alebin eta infantil mailako gimnastak lehiatuko dira-eta. Sari banaketa lan saio bakoitza amaitutakoan izango da, goizean bat eta arratsaldean bestea.

EIBARREN DOMINA BI

Joan den domekan Eibarren jokatzen zen eskola arteko A mailako txapelketan Arrasateko Gimnasia Taldeak domina bi eskuratu zituen, biak ere infantil mailan: hain zuzen ere, Leire Poyato bigarren izan zen eta Jone Goikolea hirugarren.



ARRASATE PRESS

Uarkape pilotalekua leku ezin aproposagoa da horrelako ekitaldiak egiteko.

EUSKAL HERRIAK ZAZPI, ARAMAIOK hAMAlau



Kenci Arrasatek Viajes Marfil-en kontra esango dio agur denboraldiari


XABIER URZELAI

Igoera fasea amaituta, bazirudien egin beharreko guztia eginda zegoela, baina Federazioaren esanetan, 11. eta 12. postuak erabakitzekeo partiduak geratzen dira jokatzeko. Horrenbestez, denboraldia aste biz luzatu behar izan du Kenci Arrasatek.

Arrasateko taldeak Viajes Marfil taldearen kontra lehiatu behar du hamaikagarren postu hori eskuratzeko. Joan den astean lehenengo partidua jokatu zuten Iturripen, eta Kenci Arrasateko mutilak 83-75 nagusitu ziren. Garrantzi txikiko partidua zen, baina junior mailako jokalariei minutuak emateko oso aproposa. Beheko taldetik Urkiola, Isasa, Ancin eta Domingo jokalariek jokatu zuten, eta jokalar horiek maila polita erakutsi zuten.

HASIERA ONA

Kenci Arrasateko mutilek ondo hasi zuten partidua. Lehenengo minutuetan egindako jokoari esker, Arrasateko taldeak 10 puntuko aldea eskuratu zuen. Nafarrak, zonakako defentsari esker, partidua korapilatzen saiatu ziren, baina arrasatearrek ondo



Hamaikagarren postua Viajes Marfil taldearen kantxan erabakiko da.

eutsi zioten norgehiagokari, neurri handi baten hiruko jaurtikei esker.

Bigarren eta hirugarren laurdenetan gauzak ez ziren askorik aldatu, baina laugarren laurdenean Arrasateko taldeak lan dezente egin behar izan zuen kanpotarren erasoei aurre egiteko. Kenci Arrasatek hiru puntuko aldea baino ez zuen, eta hiru puntu horiei ahalik eta etekin handien ateratzen ahalegindu zen.

Nafarrek azken ahalegina egin da ere ezin izan zuten partidua orekatu, eta Kenci Arrasate zortzi puntuko aldearekin gailendu zen.

Kenci Arrasateko mutilek oraingo aste bukaeran jokatu dute denboraldiko azken partidua. Hamaikagarren postu hori eskuratzeko da helburua, baina dagoeneko *deskantsua* berba baino ez dago jokalarien buruan. Izan ere, denboraldi luzea izan da.

Arrasate Hiria Xake Txapelketako bigarren jardunaldian ezustekoak

X.U.

Arrasate Hiria Xake Txapelketako bigarren jardunaldian hainbat ezusteko egon dira. Txapelketako faboritoetako batek, Luis Angel Ortega, Leopoldo Lainzen kontra galdu zuen, baina ez zen ezuste bakarria izan.

Argi dago aurtengo txapelketa parekatua izango dela. Bigarren jardunaldian hainbat ezuste izan dira; orain arte txapelketa eskuratzeko faborito zirenak dagoeneko ez dira horren faborito. Luis

Angel Ortega, txapelketako faboritoetako bat, hamargarren dago, joan den astean Leopoldo Lainz kantabriarraren kontra galdu eta gero. Beste faboritoetako batek, Borja Zamarbidek, berdindu egin zuen Josu Muxika gazte tolosarraren aurka.

Josu Tornayk ere lanak izan zituen Cayetano Rayo arrasatearra mendean hartzeko. Isidro Ruiz eta Javier Corral, berriz, erraz nagusitu ziren Oscar Herraizen eta Ander Ginarten kontra. Oraingo jardunaldi bi besterik ez dute jokatu, eta bost jokalar baino ez daude bi partidak irabazi

dituztenak: Josu Tornay, Felix Manso, Isidro Ruiz, Javier Corral eta Leopoldo Lainz, hain zuzen.

PARTIDA GARRANTZITSUAK

Gaur, arratsaldeko zazpitan, hirugarren jardunaldia jokatu dute, eta partida interesgarriak egongo dira ikusgai, orain arte partida biak irabazi dituzten xakelarien arteko norgehiagokak egongo dira-eta.

Isidro Ruiz eta Josu Tornay eta Javier Corral eta Felix Manso xakelarien arteko partidek erabakiko dute lider berria zein izango den.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

EMAITZAK

Saukelu Scream - Betraye	3-6
Koka Juniors - AC Surcos	5-5
Etixerat - AT Celaya	7-3
You Know! - Lasagabaster	4-5

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Betraye	4	2
2. Saukelu Scream	2	2
3. AC Surcos	1	2
4. Koka Juniors	1	2

PARTIDUAK

MAIATZAK 24, ZAPATUA. EPAILEAK

12:00: Betraye - AC Surcos	Antola.
13:00: AT Celaya - Lasagabaster	Antola.

MAIATZAK 25, DOMEKA

12:00: You Know! - Etixerat	Antola.
13:00: Saukelu S. - Koka Juniors	Antola.

B MULTZOA

1. Etixerat	4	2
2. AT Celaya	2	2
3. Lasagabaster	2	2
4. You Know!	0	2

FINALERDIETARAKO TXARTELA JOKOAN

ETXERAT ETA BETRAYER SAILKATUTA

Joan den urteko txapelkunak hirugarren fasean jokatu diren bi norgehiagokak galdu ditu, eta oraingo asteburuan irabazita ere, You Know! taldea ez da finalerdietarako sailkatuko. Etxeko lanak ondo egin dituztenak Etixerat eta Betraye taldeak izan dira, dagoeneko finalerdietarako sailkatu dira-eta. Saukelu Scream eta Koka Juniors eta Lasagabaster eta AT Celaya taldeen arteko partiduetan asko egongo da jokoan.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ESKUBALDIA

AGR Arrasate - Bergara (Kopa)	Gazteak. Kopa. Domekan. 12:00. Iturripen.
Zarautz - Gatz Museoa Jakion	Gazteak. Kopa. Zapatuan. 16:00. Zarautzen.
Gatz Museoa - Urretxu	Kadete. Kopa. Domekan. 10:30. Iturripen.

FUTBOLA

Mondra - Beti Gazte (Finala)	Lehen erregionala. Zapatuan. 17:00. Orion.
Mondra - Eibar	Ohor. gazteak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

SASKIBALDIA

Viajes Marfil - Kenci Arrasate	Seniorrak. Zapatuan. 20:15. San Cerninen.
Kenci Arrasate - Cros Xake B	Kadete. mut. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ohor. Gazteak: Araitasuna - Mondra 1-2
Kadeteak: A. Almen - Arrasate 0-3

ATLETISMOA

Arrasateko atletek urrezko hiru domina eta zilarrezko domina bi eskuratu zituzten

Joan den astean Zumarragan jokatu zen Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan Arrasateko atletek sekulako emaitzak eskuratu zituzten. 150 metroko lasterketan, Jon Ander Amado lehena izan zen, Iñaki Etxagibel bigarrena eta Markel Blanco hirugarrena.

80 metroko hesi lasterketan, Iñaki Etxagibelek urrea eskuratu zuen eta Jon Ander Amadok zilarra. 1.000 metroko lasterketan, berriz, Markel Blanco lehena iritsi zen helmugara. Atleta horiek bihar, zapatua, Euskadiko Eskola Arteko Txapelketan egongo dira.




Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ELKARRIZKETA



IKER BARANDIARAN

RAMON PÉREZ/MARGOLARIA

“Bi urtean behin teknikaz eta gaiez zeharo aldatzea komeni da”

IKER BARANDIARAN

Ramon Pérez margolari bilbotarrak erakusketa jarri du Arregi galerian. Ramonek bizi osoa darma margotzen, eta joan den aspaldian, begirada azkarrarekin ikusi beharreko margolan indartsuak egiten dabil.

Oso txikitatik margotzen duzu?

Bai, umetan, 4-5 urterekin-edo, hasi nintzen margotzen eta ez diot inoiz utzi. Oso gaztetxotan ez nuen ia beste ezer egiten: ez nuen ia ikasten, etxeko paretetan margotzen nuen...

Eta noiz hasi zinen olioekin margotzen?

12 urterekin-edo. Horrez gainera, akuarela, pastela, collage... ere egin ditut. Bestalde, egurrak eta parafina ere erabili izan ditut. Aspaldian olioak egiten nabil, beste inolako materialik eta efekturik erabili barik.

Zure kasa ikasi duzu ala eskolak hartu zenituen?

Nire kasa ikasi dut margotzen. 18 urte bete nituenean Parisera joan nintzen, kalean margotzera. Nik egindako lana ona ei zen jakin gura nuen, baita margotzeaz bizi izateko gai ote nintzen ere. Urtebete egin nuen han, erretratuak egiten, paisaiak margotzen, kaleko beste margolari batzuekin ikasten... Oso esperientzia positiboa izan zen, eta margotzeaz bizi nintekeela ikusi nuen.

Eta gaur egun margotzeaz bizi zara... Erraza da?

Bueno, batzuetan zaila da. Ez daukat bizitza maila alturik, bai-

“Oso gaztetxotan ez nuen ikasten, etxeko paretetan margotzen nuen... Ez nuen besterik egiten”

“Arregi galeriara eramán ditudan lanekin dekadentzia landu dut, gauzen eraldaketa”

na moldatzen naiz. Sasoi hobeak daude, txarragoak... Baliteke sei hilabetean margolanik ez saltzea, eta bi hilabetean bi urtean egindako lana saltzea... Tailerlean margotzen dut, eta ez naiz saltzera askorik irteten. Hala ere, geroago eta jende gehiagok estimatzen ditu margolanak eta artea bera. Eta harrigarria da nire iritziz gogorrenak edo arraroenak diren margolan batzuk gehien saltzen direla ikustea. Bestalde, eskolatan pintura eskolak ematen ditut.

Lehiaketa askotan parte hartu duzu?

Bai. Hamar urtez aukera izan nuen lehiaketa guztietan hartu nuen parte. Arrasaten ere egon nintzen, eta 90eko hamarkada hasieran San Juanetako Aire Zabaleko Margolan Lehiaketa

irabazi nuen. Lehiaketa askotara aurkeztu nintzen eta sari mordoxka jaso nituen. Aspaldian ez naiz lehiaketetara aurkeztu, atzetik datorren jendeari lekua utzi behar zaio-eta. Orain epaimahai lanak egiten ditut.

Zein gai ekartzen dituzu zure margolanetara?

Arrasatera ekarri ditudan lanek 1999an eta 2000n prestatutako serie bat osatzen dute. Bilboko gaiak dira, eta ideia nagusia ibiltariaren oroimena da: leku batetik pasatu ondoren gogortzen dena; esate baterako, itsasbeherak uzten dituen arrastoak. Nire lanak sintesiak dira. Dekadentzia lantzen dut, gauzen eraldaketa.

Hortaz, paisaia urbanoek eta industrialek inspiratzen zaituzte?

Bai, eta Bilbon bizi izateak eragin handia dauka horretan. Bilboko Itsasadarrak eta industriek asko inspiratu naute. Serie hori egin ostean, kaxa serie bat egin nuen, parafinarekin eta bestelakoekin. Arregi galerian jarri dudán seriea egin ostean material sendoagoekin lan egin gura nuen. Orain, ostera, pinturarekin lan egitera bueltatu naiz, eta hainbat gauza egiten nabil: margotutako film antzeko bat egiten nabil. Mugimenduan dauden ume lauso batzuk marraztu ditut arbela- ren ondoan. Margolanak jarraian ikusi behar dira, film baten efektu bera egin dezaten. Begirada azkarrarekin ikusteko lanak dira. Baina lan horiek Madrilen erakusketa egiteko prestatuta daukat, eta ez ditut Arrasatera ekarri. Bi urtean behin zeharo aldatzea komeni da.



Al-Andalusen Kultura Asteak Andaluzia herrira ekarriko du

I.B.

Orain dela gutxi Corazon de Encinaren Kultura Astearen gainean idatzi genuen. Oraingoan, ostera, Al-Andalus elkarteak hartu du lekukoa. Lan handia eta gogorra egiten dute elkarte bi horiek.

Arrasateko Al-Andalus elkarteak urte mordoa daramatza lanean, eta dagoeneko abian jarri duten Kultura Astea antolatzen duten hamaseigarrena da. Aurreko egunotan hainbat ekimen izan dituzte Musakolako egoitzan, baina berez Kultura Astea maiatzaren 24an, zapatuan, hasi eta ekainaren 1ean bukatuko da.

JANA, MUSIKA ETA JOKOA

Bihar, zapatua, Musakola auzoan berriro ere zabalduko da jai usaina: 12:00etan, Kultura Astearen aurkezpena egingo dute, eta lagun mordoa elkartuko dira Arrasateko eta ibarreko andalu-

ziarren egoitzan. Iluntzera arte, ostera, lasai ibiliko dira; 19:00etan, *faralae* izeneko jantzi tipikoen desfilea egingo dute; 20:00etan, aurtengo Al-Andalusko erregina eta ohorezko dama aukeratuko dituzte; afalostean, 23:00ak aldera, *play-back* jaialdia egingo dute, eta ziur elkarteko bazkideak izango direla protagonista. Ea parranda ze ordu-ra arte luzatzen den!

Domekan, berriz, elkartearen sarrera ondoan herri parrillada egingo dute, 12:00etan; eta 17:00etan, *Sube y baja* txapelketa egingo dute.

Datorren astean ere ez da aspertzeko aukerarik egongo: astelehenean, pailazo emanaldia izango dute; martitzenean, afaria eta dantzaldia egingo dituzte; eguaztenean, Andaluziako gozo tipikoak dastatuko dituzte; eguenean, dokumentala ikusi dute; eta bukatzeko, egubakoitzean, Zoe pop-rock musika taldeak kontzertua emango du.

LABUR

Gaur, egubakoitza, Kultur Errotak ‘Bentri-Magik’ ikuskizuna eramango du Jai-Zalera

Gaur, egubakoitza, AEDk, Kultur Errotaren bitartez, *Bentri-Magik* ikuskizuna antolatu du. Jai-Zale tabernan izango da, 22:30ean.

Ikuskizun bitxi hori sabeliztun batek eta mago batek egiten dute: Elvi sabeliztunak eta Marsel magoak, hain zuzen ere. Biak hala biak telebistan agertu izan dira, eta barrea eragingo digute.

Datorren zapatuan, maiatzaren 31n, bertso saioa egingo dute Monterron parkean

Datorren zapatuan, maiatzaren 31n, AEDko Bertsolaritza Sailak bertso saio berezia antolatu du Monterron parkean. 22:30ean hasiko da eta punta-puntako bertsolariek parte hartuko dute: Andoni Egaña, Jon Maia, Igor Elortza eta Aitor Mendiluzek, hain zuzen ere. Gai jartzaile Josu Goikoetxea ibiliko da.

Saioa Ibáñez dantzari arrasatearrak nazioarteko txapelketa bat irabazi du

Saioa Ibáñez dantzariak Maspalomasko (Kanaria Handia) VIII. nazioarteko bakarkako dantza txapelketa irabazi du. 70 lanetatik bederatzi sailkatu ziren, Saioaren *Ihes puntuak* tartean. Lehiaketan dantza saio bi egin zituen, kolonbiarrekin, ingelesekin eta austriarrekin lehiatu zen, eta lehenengo postua eskuratu zuen. Bihar eta domekan Bilboko La Fundicion aretoan egingo du dantza.

BEHEKO JATETXETIK

Patxi Barrutia

UGARAN JATETXEKUE

XABIER URZELAI

Patxi 1982xen zabaldu euen Ugaran jatetxie. Lehenago, baiñe, leku askotan ibilittakue da. Frankon bekadun izen zala esaten dau, harei esker 10 urte egon zan-eta kanpuen bizi izeten, ihes egindde. Gaur egun jo eta ke ibiltten da jatetxien, eta gauza bat dauko argi: jeneruen kalidadie topetan dau.

Txikittan ze gure zeuen izen?
Danon moduen, txikitten haundi gure neuen izen.
Ze esango zeuskio Bushei?
Bere rantxora erretirau daille.
Eta Aznarrei?
Rantxora bisitan juen daille.
Drogak legalizauko zeuke?
Gauzak ilegalizaute ez die konponketan, informaziñue biher da. Legalizau ezkeru, gutxienez mafiekin bukatuko geuke.
Eta prostituziñue?
Munduko lanbide zaharrena izenda, kondiziño onetan egin biherko leukie lan.

Hauteskundietan pasauko dana esaterik bai?
Gauza bakarra dau argi, hauteskunde xelebriek izengo diela.
Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?
Ciudadano Kane / Los soldados de Salamina / Musika on dana gustetan jat, klasikuetatik hasitte.
Nora juengo zitzake gustora?
Oin iñora be ez, proposamen hori ez dalako reala.
Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?
Ez neuke ezer be eruengo; polittena han topetie izengo litzake.
Etxeko lan gorrotagarriena?
Danetik egitten dogu-eta...
Juergazalie zara? Juergarako leku bat?
Geruago eta gutxiago. Lekue ez da inportantie, lagun onakin egon ezkeru.
Puntuau Mondragueko girue.
Ez dakit ba... Jentie geruago eta sarrixago kanpora jueten da-eta.
Ze dauko ona udaberrixek?



"Inportantie da jentiarri ze gustetan jakon jakittie, eta gero kalidadie eskeinttie"

Poztasune emuten dauela.
Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?
Danetik apur bat eukittie.
Tranpan ibiltekotan norbaittekin, zeñekin?
Holako problemak geruago eta gutxiago daukogu guk.
Denpora librien ze egitten dozu?
Deskantsau.
Janari eta edari gustokue-nak?
Edozer, baiñe kalidadekue izen daille.
Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?
Euskal Herrixen trankil bizi biher garela.

"Hamen ez da goserik pasetan, eta hori aprobetxau egin biher da; jatie plazerra da"

Jentiek ze eskaketan dau gehixen?
Gehixenbat arraiñe.
Lagun bat inbitau ezkeru, ze ataraku zeuskio?
Horretarako ze gustetan jakon biherko neuke, hori inportantie da-eta. Gero, produktue ondo aukeratu eta ondo preparauko neuke.
Hanburgesek eta pizzak gero eta arrakasta haundixague daukie?
Guk ez dogu goserik pasetan, eta hori aprobetxau egin biher da. Jatie plazerra da, eta azkar jatie ez jat gustetan. Neuri hanburgesak gustetan jat, baiñe okela nungue dan jakindde.

NIRE BIDAIAHURA / Iban Iglesias

Mexikora / 2002ko otsailean

Joan den astean Tuxtla Gutierrezen utzi genituen Iban eta Aitor. San Cristobal de las Casasen egindako lagun batekin joan ziren Tuxtla Gutierrezera, eta haren senitartekoen etxean egin zituzten hainbat egun. Ibanen esanetan, hango hiriak handiak dira, eta hirietan ez zen herri txikietan bezain gustura egoten. Laguna agurtu eta gero, Tuxtla Gutierrez atean utzi eta Pazifikoko aldera egin zuten. Cipolite-ra iritsi ziren, eta han bazekiten norengana joan: Cipoliteko hondartzako zaindariak, *El vigilante* ezizenaz ezagunak, harrera ona egin zien, Tuxtla Gutierrezko lagunaren izenean zihoazen-eta. *El vigilante* sekulako pertsonaia zen; *sexua* berba lepoan tatatu zerman; eta, haren esanetan, behin baino gehiagotan atera behar izan du atzeritarren bat uretatik.



"Mazunte Cipolite baino lasaiagoa zen; jendea ere ezberdina zen"

Cipoliten zeudela, euren logelan ustekabeko bisita izan zuten, eta Aitorri motxila bat lapurtu zioten. Aitorrek agiriak zeramatzan motxila hartan, baina Ibanek Aitorren pasaportearen kopia bat zeukan; eta eskerrak horri. Cipolitetik Mazunterako bidea hartu zuten Arrasateko bi lagunek. Mondragoera itzultzeko hegazkina Mexiko Hirian hartu behar zuten, baina lehenago Tasco ezagutu nahi zuten. Aca-pulcotik pasatu baino ez ziren egin, bestela Tasco (Zilarraren Herria) ezagutzeko egun gutxi izango zituzten-eta. Gustura ibili ziren Tascon; astebete egin zuten han, baina Tascoren ere izan zuten ezbeharren bat: Ibanek diru-zorroa galdu zuen, eta Tascoko irratitik eman zuten horren berri: diru-zorroa aurkitzen zuenari ordainsaria emango ziotela esanda ere, ez zen diru-zorroa agertu. Mexiko Hirira iritsi eta aireportura joan ziren zuzenean. Goizeko hamarretan beharrean, gaueko hamarretan zen hegaldia.

"Irratian iragarri genuen diru-zorroa galdu zitzagula"

XABIER URZELAI



Mexikoko Banderaren Eguna ospatzen, Tascón.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Aretz

Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABAleta



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkia

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Argazkian, Nagusilan elkarteak, eratu bezain laster, Arrasaten egin zuen batzar informatiboa.

Nagusilan elkarteak boluntarioak hezten hasi da, eta laster egoitza izango du

IKER BARANDIARAN

Nagusilan, erretiratuek elkarri laguntzeko sortutako elkarteak, hasi da pausoak ematen. Dagoeneko elkarteak boluntarioen dako ikastaroak antolatu ditu, eta laster egoitza izango du Arrasate pasealekuan.

Nagusilan elkarteak, erretiratuek elkarri laguntzeko ekimenak, boluntario lanetan ibili gura duten erretiratuendako ikastaroa abian jarri du. Edadetuak boluntario lanetan zaintzeko eta laguntzeko hastapeneko ikastaroa antolatu du, hain zuzen ere. Ikastaroan honako gaiak lantzen dabilta: edadetuei zelan lagun-

du, zein premia nagusi dituzten, boluntarioen eta edadetuen arteko harremana zelan indartu, eta Euskal Herrian esparru horretan, hirugarren adinean, dauden eta egiten diren beste esperientzia batzuk hobeto ezagutu, hain zuzen ere.

Arrasateko Nagusilan elkarteak arduradun Tomas Atxak azaldutakoaren arabera, boluntarioa lanean jarri aurretik ikusi egin behar da boluntarioak zein borondate duen eta zenbat lagundu gura duen: "Hori ezinbestekoa da, horren arabera antolatzen gara eta boluntario bakoitzarendako eginkizun aproposa aukera dezakegu", azpimarratu zuen Tomas Atxak.

Ikastaroa ICTEk (Hirugarren

Adineko Institutu Komunitarioak) bideratuta dago eta Saiolango egoitzan (Zerrajera zeneko eraikinean) egiten dabilta. Joan den astean bi egunez izan zuten ikastaroa. Eta oraingo astean, ostera, hiru egunean emango dute: astelehenean, martitzenean eta eguaztenean, hain zuzen ere. Hiru egun horietan 16:00etatik 18:00etara izango da.

LASTER EGOITZA IZANGO DUTE

Nagusilan ez da elkarte berria. Orain dela zenbait urte Donostian eta Gipuzkoako beste hainbat hiritan erretiratuek elkarri laguntzeko elkarteak eratu zituzten. Elkarteari Nagusilan izena jarri zioten eta bakarrik dauden edo premiak dituzten erretira-

tuei mesede handia egiten hasi ziren. Bakarrik daudenei laguntasuna eskaintzen diete eta horrez gain, edadetuei deialde beste edozein zerbitzu ere ematen diete.

Orain dela zenbait hilabete Arrasaten ere sortu zuten Nagusilan. Batzar informatiboak egin zituzten eta boluntario bila dabilta. Dagoeneko bost boluntario hasi dira lanean, eta beste zazpi lagunek ere hartzen dute parte.

Nagusilan-ek Arrasateko Udalari egoitza eskatu dio. Dagoeneko Udalak baieztatu erantzuna eman dio eta laster elkarteak Arrasate pasealekuan izango du egoitza. Elkarteak antolatutako ikastaroetan parte hartzeko edo Nagusilan elkartearen berri izateko, jo ICTEra.

LABUR

Abaroa elkarteak Iratxera txangoa antolatu du

Hilaren 30ean Abaroa elkarteak Iratxera txangoa antolatu du. Hamarretakoa egin ondoren, Oliteko gaztelua bisitatuko dute, eta bazkaria Iratxe hotelean izango dute. Dantzaldia ere egongo da.

Interesatuak 15 euro ordaindu beharko dituzte.

Bizi-testamentua izan zuten berbaiz Abaroa elkarteak

Atzo, eguna, oso berbaldi interesgarria egin zuten Abaroa elkarteak.

Hain zuzen ere, Aitziber Emaldi abokatuak Aurretiako Borondateen Legearen edo bizi-testamentuaren gainean egin zuten berba. Esan beharra dago berbaldiak interes handia piztu zuela.

Abian daude Nagusilan-en ikastaroak

Arrasateko Nagusilan elkarteak edadetuak zaintzeko eta eurekin egoteko hastapen ikastaroa antolatu du. Ikastaro hori Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioan (ICTE) emango dute, Saiolango eraikinean, lehenengo solairuan (Zerrajera zen eraikinean).

Ikastaroa honako eguntan emango dute: maiatzaren 20an, 21ean, 27an, 28an eta 29an. 16:00etan hasten dira eta ikastaroak ordu bi irauten du. Edozeinek har dezake parte eta doan da. Informazio zabalagoa honako telefonoetan: 943 77 16 99 eta 943 79 25 85.

HASTAPEN MAILAKO SUKALDARITZA IKASTAROA



ZER DA?

12-15 laguneko talde txikian sukaldaritzako hainbat gai ikasiz ondo pasatzeko ikastaroa da. Gutxi edo ezer ez dakitenendako. Lehen platera, bigarrena eta postrea landuko dituzte.

NOIZ:

ekainaren 2an, 4an, 5ean, 11n, 12an, 16an, 18an eta 19an.

ORDUTEGIA:

19:00etatik 21:00etara

IZENEMATEA:

elkartearen bertan eman behar da izena. Matrikula maiatzaren 30a baino lehenago ordaindu beharko da.

Antolatzailea:

Ekin
Emakumeak • AED

Paulo Uranga 6. behe-20500
ARRASATE
Tel.: 943798370 / 651707936.

Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EMAKUNDE



ARRASATE
Soraya Álvarez
Maiatzaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Aita, ama eta Ainara.



ARRASATE
Ane Usobiaga
Maiatzaren 14an, 11 urte. Zorionak! Ane, aita eta ama.



ARRASATE
Miriam García
Maiatzaren 20an, urtebetetzea. Zorionak! Rafa, Kiryam, Patricia eta auzokoak.



ARRASATE
Encarna Amorós
Maiatzaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Rafa, María eta auzokoak.



ARRASATE
Markel Irazu
Maiatzaren 28an, 12 urte. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Aitor Iraeta
Maiatzaren 24an, 6 urte. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Aintzane Rodríguez
Maiatzaren 23an, 9 urte. Zorionak! Jone eta etxe-koak.



ARRASATE
Ainhoa Apaolaza
Maiatzaren 22an, 13 urte. Zorionak! Mireia, Jone eta koadrilako partetik.



GASTEIZ
Lierni Balanzategi
Maiatzaren 24an, 10 urte. Zorionak! Aita, ama, Ele-ne eta Aramaioko familia.



ARRASATE
Nerea Madinabeitia
Maiatzaren 23an, 4 urte. Zorionak! Familiaren partetik.




ARAMAIO
Iker Guerrero
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Iñigo Gutiérrez
Maiatzaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Emeterio Domínguez
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Ikastolako talde gorria eta urdina.



ARAMAIO
Garazi Parra
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Aita, ama eta Gaizka.



ARAMAIO
Maialen Urizar
Maiatzaren 22an, 16 urte. Zorionak! Koadrilako partetik.



ESKORITATZA
Mikel Murillo
19an, 6 urte. Zorionak! eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARAMAIO
Petra Morales
Maiatzaren 20an, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Maite Astarloa
Maiatzaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Errastiko jateko partetik.



ARRASATE
Kaitin Allende
Maiatzaren 20an, 31 urte. Zorionak, txoruoil! Zure kazetari lagunak.



ARRASATE
Iratxe Díez
Maiatzaren 28an, 30 urte. Zorionak, potxola! Lagunak.



ARRASATE
Natali Martínez
Maiatzaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, Nata Lee Wood! Lankideak.



ARRASATE
Hodei Uranga
Maiatzaren 24an, 13 urte. Zorionak! Familiako partetik.



SORALUZE
Ubane Madera
Maiatzaren 24an, 30 urte. Zorionak, treintañera! Lan-kideen partetik.



ARRASATE
Martxel Aranzadi
Maiatzaren 22an, 2 urte. Zorionak, eta ondo pasatu eguna! Etxekoak.




ARRASATE
Máximo Uribesalgo
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak, aita eta aitaita! Etxekoak.



ARRASATE
Maialen Uranga
Maiatzaren 23an, 11 urte. Zorionak! Familiako partetik.

Adi!
Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.



*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Aldez aurretik
deitu!



Zenbaki

Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETAKO
Tel.: 943 71 21 12 • Faxa: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@zenbaki.es

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arruntak koadrilako modurik azkarrena.



EZETZASMATU



'ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN' LIBURUA

Zein auzotan zegoen argazkian ikusten den harraska?
Arrastoa: orain dela gutxi hango jaiak izan ziren.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Koipesol ekilore-olioa
Litro bat

1,19€ 198 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANDER SOTOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ander!
Galderen erantzun zuzena:
2000. urtean.

ARRASATEKO HISTORIA

Santa Barbara parkeko gazteluaren gainekoa

JON ANDER RAMOS


Orain dela gutxira arte Santa Barbarako gaztelua legenda edo kondaira hutsa zen askoren iritziz, historiagile askok hala zioten-eta. Beste batzuek, ordea, Garibai tartean, han gaztelu bat bazela zioten. Hain justu, Garibai mondragoetarrak egin zuen gazteluaren gaineko lehenengo aipamen idatzia, XVI. mendean: 1374ko gertaera batzuk kontatu zituen. Eta 1992an, hark arrazoa zuela erakutsi zuten Santa Barbaran egindako berrikuntza lanek. Hain justu ere, dorreen oinen arrastoak aurkitu zituzten orduan. Gero, 1994an, arrasto haiek berreskuratzeko lanak egin zituzten.

Zalantza handiak daude gazteluaren jatorriaren gainean: Nafarroako Antso Abarka II.aren aginduz egin zutela diote zenbaitzuek, baina zenbait adituren iritziz hori hala izatea gaitza da, sasoi hartan inguru hauek Nafarroako erregearenak barik Gaztelako erregearenak ziren-eta. Kontuak kontu, antzinakoa da oso. XI-XII-XIII edo XIV.

Garibaik XVI.ean aipatu zuen gaztelua: 1374ko gertaera batzuk kontatu zituen

Gaztelua bota ostean, Santa Barbara gainean Goiko-obalu izeneko biribilunea geratu zen

mendean eraiki zuten (data horren gainean hainbat teoria daude), Mondragoe izeneko hiribildua defendatzeko. Baina urteekin erabiltzeari utzi zioten, eta apurka-apurka gaizkileen babesgune bilakatuz joan zen. Horrela, Udal Artxiboa gordeta dagoen agiri batek erakusten duen moduan, Juan II.a erregeari gaztelua botatzeko baimena eskatu zioten



ARTXIBOA

1457ko martxoaren 30ean bota zuten Santa Barbarako gaztelua, Gaztelako Enrike IV.a erregearen aginduz.

1442an. Hark botatzeko agindua eman zuen, baina ez zuten agindua bete. Hala, geroago, Gaztelako Enrique IV.a erregeari gauza bera eskatu zioten, eta hark gaztelua botatzeko

agindua eman zuen 1457ko martxoaren 30ean.

Gaztelua bota ostean, Santa Barbara gainean Goiko-obalu izeneko biribilunea geratu zen. Eta 1653an Barbara de

Abarrategi Orok Santa Barbarari eskaintako ermita eraiki zuen muino haren iparraldean. Era berean, Ines eta Gertrudis zaindarien irudiak ipini zituen ermita hartan.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko maiatzaren 23a / 65. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Gai dezente agintaldiko azkeneko osoko bilkuran

UBANE MADERA

Agintaldiko azkeneko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak eguaztenean, hilaren 21ean. Besteak beste, herriaren gaineko webgunea eta bideo produkzioa izan ziren berbagai.

Azken urteotan Aramaioko Udalean jardunean ibili den udalbatzarrak agur esan zion lan horri eguaztenean, hilaren 21ean.

Baina, hori baino lehen, gai zerrenda luzea landu zuten zinegotziek. Besteak beste, *Lurgorri*-ri egindako omenaldiarengatik esker ona adierazi zuen udalbatzarrak. Horrez gainera, jakinarazi zuten zinegotziek ikusi dutela Producciones B30 enpresak Aramaioren gainean egindako bideoa. Horrez gainera, Aramaioren gaineko webgunea egin du Goiena Komunikazio Zerbitzuak; hain justu, osoko bilkuran horren berri emateaz gainera, jakinarazi zuten datorren eguenean, hilaren 29an, webgunearen aurkezpena egingo dute-



Datorren agintalditik aurrera erabat aldatuko da Udal taldea.

la, 18:30ean, kultura etxean.

DIRULAGUNTZAK

Bestelako gaien artean, San Martin Eskolako eta Arexola auzoko

lanak ere landu zituzten; eta auzolanerako, kultura jarduerak sustatzeko, euskara ikasteko eta eskola-garraioko dirulaguntzak ere jorratu zituzten.

Bareako pilotari gazteak txapelketa jokatzeko dabilta

Maiatzaren 9an hasi eta ekainaren erdialde ingurura arte Pilota Txapelketa jokatu dute Bareako pilotariek. Taldeko gidari

Enrike Axperen esanetan, urtean barrena ikastaroan dabilta mutikoei euren zaletasuna osatzen laguntzeko antolatu dute txapelketa, ETB Kantxa saria jokatzeko delatxatuta.



Ekainaren erdialde arte egongo dira pilota partiduak pilotalekuan.

MUTIKO MORDOA

Hala, 25 bat mutiko parte hartzen dabilta txapelketan. Joan den barikuan partiduak jokatu ziren, eta gaur ere hala izango da, 18:00etan hasita.

Joan den barikuko emaitzak honakoak dira: Senar-Mikel: 20/Raul-Ekain: 22; Serrato-Ander Axpe: 22/Rioja-Ruiz: 12; Manex-Markel: 12/Xabi-López: 22 eta Bingen-Iñaki: 19/Asier-Aitor: 22.

Gaur, barikua, berriz, honako partiduak jokatu dituzte: Serrato-Axpe/Senar-Mikel; Ruiz-Rioja/Raul-Ekain; Iker-Igor/Asier-Aitor; Bingen-Iñaki/Manex-Markel.

Horien ostean ETB Kantxa sariako partiduak jokatu dituzte, 21:00ak inguruan.

Manex Agirre finalean egongo da, Gasteizen



U.M.

Manex Agirre aramaiarra Gasteizko Printzipal antzokian jokatu den Arabako Bertsolari Txapelketako finalean egongo da. Zapatuan lortu zuen finalerako txartela, Amurrioko finalerdian. Saioan parte hartu zuten sei bertsolarien artean Zigor Enbeitak lortu zuen puntu gehien.

Xenpelar Bertsozale Elkartek emandako informazioaren arabera, Zigor Enbeitak 228,5 puntu eskuratu zituen Amurrioko Zarabe Institutuan, hasieratik bukareraino egindako saio erregularri eta txukunari esker; bigarren Juan Mari Juaristi izan zen, 217 punturekin. Zortziko nagusian eta txikian oso lan polita egin zuen; eta hirugarren Manex Agirre izan

zen, 212,5 punturekin. Ofiziotan ondo ibili zen Manex Agirre, eta batez ere zortziko txikian jaso zituen entzuleen txalo beroenak.

FINALERAKOAK

Amurrion jakin ziren, gainera, ekainaren lehen, 17:30ean, Gasteizko Printzipal antzokian egongo diren sei bertsolarien izenabizenak: Asier Otamendik (232,5) Zigor Enbeitaren (228,5), Oihane Perearen (218,5), Juan Mari Juaristien (217), Ruben Sánchezen (216,5) eta Manex Agirreren (212,5) aurrean defendatu beharko du izaz eskuratu zuen txapela.

Hortaz, Andere Arriolaberagoak eta Iker Agirrek ez dute lortu finalerako sailkatzerik. Hala, ekainaren lehen Aramaio Manex Agirrerekin egongo da. Ea, bada, izaz joan zen zaleen autobuskada gaitzen duten aurret!

LABUR

Areto futbola eta neguko zinema bukatzean daude aurtengoz

Apurka-apurka bukatuz doaz ikasturtean barrena egiten diren ekimenak: areto futboleko, nesken moduan, kadete mailako mutuek ere bukatu dute aurtengo txapelketa. Hain zuzen ere, 8-4 gaitu zuten Laudioko Ikastolaren kontra denboraldiko azkeneko partiduan; gazte mailakoek, berriz, 6-7 irabazi zioten Izarra Gorri taldeari; eta bihar, zapatua, Aguraingo Oriamendi Lezaola taldea izango dute aurret aurre, Aramaion, 11:30ean.

Zinemari dagokionez, kasu horretan ere datorren astean bukatuko da neguko zinema denboraldia. Azarotik maiatzaren amaierara arte izaten da neguko denboraldia eta uztailetik irailaren amaierara arte, udakoa. Edozelan ere, neguko denboraldia bukatu baino lehen bi film emango dituzte: oraingo domekan *Grease* filma emango dute, DVD formatuan, azken asteotan moduan.

M25 / ARAMAIORAKO EGITASMOAK



EAJ/EA

Herria biziberritzea eta hirigintza dira ildo nagusiak

► **ERRONKA GARRANTZITSUA**
EAJ/EA koalizioarendako oso garrantzitsua da Aramaio herri dinamiko eta bizia izatea. Horrez gain, hirigintzarekin lotutako gaiet eman die garrantzirik gehien:

► **ARAMAIORAKO**

Honako 11 ekintza proposatzen ditu koalizioak Aramaiorako: Eguzkierripako azpiegiturak; babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikitzea Ibarren; etxebizitza horien bi solairutan aparkalekuak egitea; Arexola-Arriolako azpiegiturak; Arexolako plaza zolatzea; Oletako plaza eta eliza inguruak zolatzea eta errepeidea guarda-etxeraino luzatzea; Udaletxearen barru aldea berritzea; Matxain kalea zolatzea, industrialdea sortzea eta garatzea eta nekazaritza gunetako postontzien araudia ezartzea.

► **BATZAR NAGUSIETARAKO**

Bestalde, Diputazioaren babesa lortzearen garrantzia aipatzen du koalizioak; horren harira, Iñaki Nafarrate aurkeztu dute Batzar Nagusietarako. Baina, horrez gain, honako puntuok ere proposatzen dituzte: hauteskunde legea aldatu eta betiko zazpi koadrilak berriro ezarri, *Tierras Esparzas* delakoa ezabatuz; Madrilo ildoetatik aldendu eta duela lau urteko autonomia berreskuratu; nekazaritza guneen garapena, Arabako herrietan bizi direnak bigarren mailako herritarrek izateari uzteko; Zerbitzu sozialak garatzea; Euskadiren bakea eta normalizazioa lortzeko Ibarretxeren Plana ezartzea; eta bukatzeko, koalizioak dio elkarrizketa eta eskubide guztiakiko errespetua eskaintzen duela eta gertu dagoela indarkeria gaitzesten dutenekin normalizazioaren alde lan egiteko.



HAMALAU

Hirigintza, ingurumena, kultura, kirola... Proposamen asko

► **PROPOSAMEN UGARI**

Hamalau proposamen ugari gauzatzen ahaleginduko litzateke alkatetzan egoteko eskubidea izango balu. Labur-labur emango dugu horien berri.

► **UDALARI BEGIRA**

Oro har, herritarren parte hartze zuzena defendatuko lukete, erreferenduma, elkarrizketa eta antzerakoak ildo moduan erabilita. Baserri auzoak aintzat hartuko lituzkete eta Oletako mahai elektorala berreskuratzen saiatu, besteak beste.

► **ARAMAIORAKO**

Honakoak gauzatuko lituzkete: hutsik dauden etxebizitzak betetzeko planak abiarazi; ingurumena errespetatzen duten enpresak sortzeko eta erakartzeko industrialdea sortu; gasifikazioa herri osora zabaltu; teknologia berrien sarea ekarri; kultur eta kirol instalazioak behar bezala mantendu eta behar berrietara egokitu; kiroldegien kanpo aldea egokitu, erabili ahal izateko; eskola behar bezala zaindu eta ospitale zaharrari eta hiltzeari irtenbidea eman.

► **HERRITAR MULTZOAK**

Hirugarren adinekoak dituzten familiendako laguntzak proposatuko lituzkete, eta etxebizitza babestuak egitea. 0-2 urteko umeendako udal haur eskola abiaraziko lukete; gazteen ekimenak bultzatuko lituzkete; andreen eta gizonen arteko berdintasunaren alde jardungo lukete eta herriko presoei eta haien senideei laguntzak eskainiko lizkiekete.

► **BESTELAKOAK**

Horrez gain, zergak neurrian igotzea, nekazaritza planak abiaraztea, kultur eta kirol taldeak indartzea eta euskararen alde egitea ere gurako luke Hamalauk.



PSE-EE

Hirigintza lanei eman die garrantzia PSE-EEK

► **KALITATE HOBEA**

Lehenik eta behin, PSE-EEK adierazi du Arabako herri guztietan aurkezteko erabakia hartu dutela, sozialisten aldeko botoa eman gura dutenek hori egin ahal izateko. Horrez gainera, alderdi sozialistak lehentasuna eman gura die azpiegiturak hobetzeari, horrek herritarren bizikaltatea hobetzea dakarrelako. Eta hori lortzeko, PSE-EEK uste du erakundeen arteko harremanak hobetu egin behar direla (Udala, Diputazioa, Eusko Jaurlaritza). Batez ere, Aramaio Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko komunikazioa bideratu gura du. Udalari begira, berriz, herritar guztiak egindako eskaerei kasu egin beharko lieketela uste du.

► **ARAMAIORAKO**

Edozelan ere, Aramaio-ko proposamen zehatzak ere egiten ditu. Guztiak ere hirigintzarekin lotutako egitasmoak dira. Honako hauek: Eguzkierripako ur sarea eta saneamendua hobetzea; Errotabarrin dauden argindar, telefonia eta gas azpiegiturak kanalizatzea; Untzillan eta Errotabarrin ur zikinen sarearen eta saneamenduaren zati bat berritzea; errepeideak eta bestelako bideak, oro har, berritzea, batez ere Matxain; Ibarretatik Etxaguenera doan A-4025 errepeidean eta Gantzagarako A-4028 errepeidean hobetze lanak egitea; Muruko errepeidea eta harri-lubeta zabaltzea. Uribarriko errepeidean drainadura egitea; Andra Maritik Ibahe eta Maskarriano baserrietara doan bidea zabaltzea eta hobetzea; Gatzikarro baserrirako bidea hobetzea eta Arexolako plaza urbanizatzea eta zolatzea eta azpiegiturak hobetzea.



PP

Ordezkaritza lortu gura du; baita turismoa indartu ere

► **ORDEZKARITZA LORTZEA ARAMAION**

Alderdi popularrak Aramaio-ko duen helburu nagusia ordezkaritza lortzea da, orain arte ez du izan-eta zinegotzirik. Behin hori lortuta, honako lau puntuok dira garrantzitsuenak PPko ordezkarientzako:

► **EMAKUMEAK**

Arlo honetan, emakumeendako ikastaroak proposatzen ditu; beti ere, enpresen behar errealak kontuan hartuta antolatutako ikastaroak izango lirateke.

► **GAZTEAK**


Alderdi popularrarendako garrantzitsua da jende gaztea Aramaio-ko erakartzea. Hain justu ere, ibarreko eta inguruko gazteendako ardatz bilakatu gura dute Aramaio. Horretarako bi ekimen proposatzen dituzte: babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea, batetik. Eta, gazteendako ekintzak antolatzea, bestetik.

► **PERTSONA NAGUSIAK**

Eta, nagusiak ahaztu barik haiekiko arreta bultzatu gura du. Horretarako, etxez etxekok zerbitzua hobetzea proposatzen du; eta pertsona nagusiendako egoitzetan arreta zentroak eta eguneko zentroak bultzatzea.

► **TURISMOA ERAKARTZEKO AUKERA HANDIA**

Eta, bukatzeko, Aramaio-ko promozionatzeko eta bisitariak erakartzeko aukera handiak dituela uste du PPK, eta hori indartzea proposatzen du. Horretarako Aramaio-ko dauden ostalaritzako azpiegiturak eta azpiegitura turistikoak bultzatzea proposatzen du. Turismoa bultzatzeko plan eraginkorrrak abiaraztea proposatzen du eta bisitariak erakartzeko ekimenak.



UA

Araba Nafarroa moduan: Arabako Estatutuaren aldeko apustua

► **PROGRAMA OROKORRA**

Hasteko, esan beharra dago Aramaio-ko programa eskatu arren, Unidad Alavesak Arabako duen programa orokorra bidali digula. Hortaz, hor zehazten dituen ildoak aipatuko ditugu labur-labur.

► **ARABAKO ESTATUTUA**

Araba Espainian integratutako autonomia erkidegoa da, eta Arabako autonomia eratzeko oinarri moduan estatutua proposatzen dute arabarrendako. Autosufizientzian oinarritutako Araba izatea gura dute, eskumen gehiagorekin. Horren barruan, adibidez, Batzar Nagusiek parlamentu izaera izatea gura dute, eta Araba modu askean atxikitzea Euskadiri. Horretarako, herri-kontsulta egitea proposatzen dute. Oro har, Araba nazionalismoarekiko muga naturala izatea gura du Unidad Alavesak.

► **ESKUBIDEAK**

Hortik aurrera, UArendako herritar guztiak dute eskatasunerako eskubidea; familia bat osatzeko eskubidea (lana eta etxebizitza edukitzeko eskubideak aipatzen ditu); familiak babesteko eskubidea (geroago eta nagusiagoak garelako kontuan hartuta, errealitate horretara egokitze bideak proposatzen ditu); sexualitatea modu librean bizitzeko eskubidea (modu guztiak errespetatuz); gizarte eta medikuntza aldetik erantzun egokia jasotzeko eskubidea; hezkuntza eta kultura izateko eskubidea (kultura modu orokorrean landu eta euskal kulturari lehentasuna eman barik), besteak beste.

► **BESTELAKOAK**

Era berean, errepeideak konpondu gura ditu eta nekazaritzarako egitasmoak landu, besteak beste.

ERRETRATUZAHARRA

Arrasateko lehengo kale saltzaileak

Behin edo behin berba egin izan dugu Arrasaten egoten ziren esne saltzaileen gainean. Bada, horrelako beste argazki bat ekarri dugu oraingoan; izan ere, kontu ugari daude esne saltzaileen eta, oro har, kale saltzaileen gainean.

Udalatik, Uribarritik, Garagartzatik, Santa Agedatik, Bedoñatik eta Untzillatik etortzen ziren kalera esnea saltzera. Emakumeak izaten ziren ia guztiak. Astoarekin etortzen ziren, eta esnea saltzeko astoa kalean "aparkatu" egiten zuten. Adibidez, Iturriotz kalean oraindik ere badago astoa lotzeko zigilu horietako bat. Kantoietan egoten ziren esnea saltzen. Aipatu beharra dago, era berean, horrenbeste asto pasatu eta gero kaleak zikinak geratzen zirela, eta kale garbitzaileei orduan ere ez zitzaie la lanik falta.

Esne saltzaileez gainera, beste kale saltzaile mota bat ere ibiltzen zen Arrasaten, uda garaian: arrain saltzaileak, hain zuzen. Portura sardina edo antxoa asko sartzen baziren (baita beste arrain motaren bat ere), otarra buruan



zutela agertzen ziren Arrasateko kaleetan *Sardiña preskue...* esanez.

Bestetan azoka txikira joaten ziren. Han jakiak iragartzeko beste sistema bat zuten saltzaileek: pregoia jotzen zuten, plazan salgai zegoen guztiaren berri emateko. Besteak beste, *Torres* goitizena zuten lagun bat ibiltzen zen

horretan: Bonifacio Zubialdea Amotxategi, hain zuzen ere.

Baina, duda barik, umeendako kale saltzaile ezagunenak gozoak eta litxarrerriak saltzen zituztenak ziren; haiak, adibidez, ondo asko ikasi zituzten zinema-orduak eta hara joaten ziren filma hasi baino lehen, gozokiak

saltzera. Horrez gainera, saltzaileetako bik, *Barkillero*-k eta Teodoro Larrañagak, udan izozkiak saltzen zituzten.

Argazkia: On Justino Uribealgo Zaloña
Informazioa: Eusebio Iñarra eta Espe Lizarralde
Urtea: 40-50eko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Portaloia, arrasatearren topaleku

Ondoko argazkia J.M. Velez de Mendizabalen *Bizi izan juat* liburutik hartu dugu. Liburuan kontatzen duenez, Union Cerrajera lantegiko ordutegiak baldintzatzaren zuten, neurri handi baten, Arrasateko erdialdeko giroa.

Portaloitik Biteri kalea gurutzatu eta bertan zegoen lantegia. Geroago, baina, trenaren ordutegiak ere baldintzatu zuten kaleko giroa.



≈ 1926 San Frantzisko eliza eta Portaloiko arkuak dira urteen joan-etorriei hobeto aurre egin dieten eraikinak.



2003 Gaur egun lantegien ordutegiak kaleko jendearen zenbatekoa baldintzatu beharrean, errepidean dabilzan auto kopurua baldintzatzen dute.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

PUB HAIZEA

arrasate

arbolapeta

arrasate

beinke

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

HERRI ANITZARI BOZKA EMATEKO 10 ARRAZOI

Datorren Maiatzaren 25.ean, hauteskundeak ditugu. Hauteskunde bereziak, "bitxiak" ez esatearren. Izan ere, lehen aldiz, "demokrazia garaian" euskal gizartearen zati bati, parte hartzeko eskubidea kendu nahi diote. Horixe da estatu espainolaren pretentsioa, Euskal Herriaren aurka daraman eraso estratejiaren baitan. Inposizio hori onartzeak, hauteskundeak eta sortuko diren instituzioak indargabetuko lituzke; izan ere, pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak, errespetauak izan behar dira joku demokratikoan.

Guk, egoera honen aurrean, uste dugu, aukerarik onena geure botoa askatasunean ematea dela, inoren eta inongo inposizio eta debekurik gabe.

1. Datorren urtean 1975 ezin izan delako.
2. Datorren urtean 2004 izan behar delako.
3. Gaur egin dezakeguna, biharko utzi ezin delako.
4. Jokoan dagoena 2003-2007 bakarrik ez delako.
5. Jokoan dagoena 40 urtetako lana delako.
6. Jokoan Euskal Herriaren etorkizuna delako.
7. Gogoratzen? Hitza eta erabakia (botoa) geureak direlako.
8. Euskal Herriaren ordua delako.
9. Maiatzaren 25an jokoan gure eskubideak daudelako.
10. Guzti honegatik, egoera zail hau Euskal Herriaren aukera bihurtzeko...

Autodeterminazioaren alde bozkatu



HERRI | **HERRIAN**
ANITZA | **HITZA**

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

Kiropraktika zentrua

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

podologia

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22